

GIZARTE LARRIALDIKO APARTAMENTUEN ARAUTEGIA - ZARAUZKO UDALA

ZIOEN AZALPENA

Gizarte larrialdiko apartamentuen erabilera eta sarbidea arautzea da arautegi honen xedea.

Gizarte Zerbitzuetako Departamentuan bizitoki beharrean dauden hainbat pertsonaren egoerak jaso izan ditugu. Orain arte behar horiei ezin izan zaie erantzunik eman, baina garbi utzi dute beharrezkoa dela era horretako baliabide bat sortu eta arautzea.

Era berean, bitarteko hau sortu eta arautzeak erantzuna ematen dio larrialdiko bizitokien gaian Udalen eskumenak arautzen dituzten hainbat arautegiri.

Gizarte larrialdiko apartamentu hauen xedea honakoa da: arautegi honen bigarren artikuluan definitutako larrialdi/presa egoerei irtenbide bat ematea, apartamentu horiek aldi baterako erabiltzen lagata. Apartamentuen lagapenak zerbitzu publikoaren prestazio izaera du, eta, hortaz, herri administrazioetako zerbitzuen prestazioa arautzen duen arautegia jarraitu behar du. Hau da, larrialdiko apartamentuaren aldi bateko erabiltzailearen eta Zarauzko Udalaren –edo zerbitzua kudeatzen duten zerbitzuaren– arteko harremanak ez du errentamenduaren izaera juridikorik izango. Apartamentua ezingo da inola ere denbora mugarik gabe laga.

Abenduaren 5eko 12/2008 Lege berriak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, 42. artikuluan esaten du *Udalek eskumena izango dutela, bakoitzak bere udalerrian, eginkizun hauek betetzeko: Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuak eskaintzea.*

Halaber, lege horretako 22. artikulua EAEko Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen katalogoan sartutako zerbitzu eta prestazio ekonomikoak ezartzen ditu, eta esaten du lehen-mailako gizarte zerbitzuen artean daudela, besteak beste, *gaueko harrera-zentroak eta bizitoki zerbitzuak (hor sartzen dira harrera-pisuak)*

Uztailaren 30eko 155/2001 Dekretuak, gizarte zerbitzuen alorreko egitekoak zehazten dituenak, 4.2.1.2. artikuluan honakoa dio Udalaren funtzioei buruz: *“Larrialdietarako abegi-zerbitzuaren egitekoa izango da dagokien pertsonen aldi baterako ostatua eskaintzea...”* eta 4.2.1.3 artikuluan honela jarraitzen du: *“Larrialdietako abegi-zerbitzua honelako mota batekoa edo batzuetakoa izan daiteke, nahiz eta beste ostatu-mota batzuk presta daitezkeen.*

- a) *Pertsona bizi den udalerriko hoteletan plazak ituntzea.*
- b) *Abegi-etxebizitzak: etxebizitzarik ez duten pertsonen segurtasun fisikoa edo emozionala arriskuan jar dezaketen elkarbizitza-arazo larriak dituztenak hartuko dira nahitaez. Etxebizitza horien kokapena isilpean eduki beharko da beti.*

c) *Aterpeak: etxebizitza finkorik ez dutenentzat izango dira*".

I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea

Gizarte larrialdiko udal jabetzako apartamentuen erabilera eta sarbidea arautzea da arautegi honen xedea.

1. Gizarte larrialdiko udal apartamentuak larrialdiko aldi bateko harrera egiteko bizitokiak dira, eta etxebizitza-gabeziak eta/edo bizikidetzaz gatazka larriek eragindako egoerei aurre egiteko erabiltzen dira.
2. Gizarte Zerbitzuetako Departamentuak egingo du bai pertsona horien jarraipena, bai etxebizitza horiek okupatzera eraman dituen egoerarena, eta bai bakoitzari dagokion esku-hartze planarena ere.
3. Larrialdiko apartamentu bera aldi berean erabil daiteke pertsona eta/edo bizikidetzaz unitate desberdinen arazoei irtenbidea emateko, baldin eta apartamentuko dimentsioek eta ekipamenduek horretarako aukera ematen badute. Onuradunek ezingo dute inola ere, apartamentuan denbora asko daramatela-eta, etxebizitzaren erabilera eskusiboari buruzko inolako eskubiderik baliatu.

2. artikulua. Definizioak

Arautegi honen ondorioetarako bizitoki-gabeziaren edo bizikidetzaz gatazka larriaren egoeratzat hartuko dira ondorengo zirkunstantziak eragindakoak:

- a) Baliabide gutxi izan eta ez ordaintzeagatik, jabearen beharagatik, aurri deklarazioagatik edo antzekoengatik, jurisdikzio zibilaren aurrean jarraitutako prozeduretan, epai irmo bidez agindutako desahuzioak.
- b) Bizitokia behar duen pertsonak edo pertsonak bizilekutzat erabiltzen duten eraikinaren hur-hurreko aurri deklarazioak.
- c) Hondamendi, sute eta antzeko fenomenoek familia-unitatearen bizitokia hondatzea.
- d) Familia-gatazka larria, pertsonen segurtasun fisikoa edo emozionala arriskuan jartzen duena.
- e) Bizitoki beharra duten pertsonak, baldin gizarteratze programa batean parte hartu eta bertan bilakaera ona badaramate. Kasu horietan apartamentuko egonaldia beti

baldintzatua izango da; hau da, zorrotz bete beharko dira banakako arreta-programaren baitan jarritako ekintzak.

II. KAPITULUA. ONURADUNAK

3. artikulua. Onuradunak zehaztea: betebeharrak

- a) Larrialdiko apartamentuen onuradun izan daiteke Zarautzen gutxienez 6 hilabeteko antzinasunarekin erroldatua egon eta bertan bizi den edozein pertsona edo bizikidetzta-unitate, baldin aurreko artikuluan adierazitako egoeraren batean badago. Salbuespen gisa, apartamentu hauetan sartzeko aukera izango dute, udalerrian bizita ere, eroldaren betebeharra betetzen ez dutenek, baldin eta aparteko arrazoiek hori egitea eskatzen badute, eta aurrez batzordeko kideek aztertu eta onartzen badute.
- b) Beste udalerrri batzuetako pertsonak ere sar daitezke, baldin eta haren ohiko bizilekuko Udalak edo erakunde eskudunak eskatzen badu eta aurrez batzordeko kideek gaia aztertu eta onartzen badute. Kasu horretan udal edo erakunde horrek konpromisoa hartuko du dagokion tasa ordaintzeko, eta gainera adierazi egin beharko du zergatik uste duen komenigarria dela larrialdiko bizitokia Zarautzen ematea. Dena den, pertsona horiek hartzeko kontuan hartuko da eskaera egin duen udal edo erakundeak ere berezko baliabideak izatea horrelako beharrei erantzuteko eta Zarauzko Udalak ere aukeran horiek erabili ahal izatea.

4. artikulua. Onuradunen eskubide eta betebeharrak

4.1. Eskubideak

Arau orokor gisa, onuradunek ondoko dekretuan adierazitako eskubideak izango dituzte: 64/2004 DEKRETUA, apirilaren 6koa, euskal autonomia erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna, eta iradokizunen eta kexen araubidea, onartzen duena.

4.2. Betebeharrak

Arau orokor gisa, onuradunek ondoko dekretuan adierazitako betebeharrak izango dituzte: 64/2004 DEKRETUA, apirilaren 6koa, euskal autonomia erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna, eta iradokizunen eta kexen araubidea, onartzen duena.

Eta bereziki:

- a) Bi agiri sinatuko ditu: batetik, sartzeko eskaera-orria, eta bestetik larrialdiko etxebizitza erabili eta gozatzeko arautegian adierazitako arauak beteko dituela adierazteko konpromisoa.
- b) Bizitokian aldi baterako egonaldia eragin duen egoera aldatzearen egin beharreko kudeaketa administratibo eta/edo judizial eta/edo beste edonolakoak egin.
- c) Gizarte zerbitzuek eskatutako agiriak epean aurkeztu.
- d) Seme-alabak edo bere kargura dituen beste pertsona batzuen zaintzaz arduratu.
- e) Bizitokian berekin batera dauden beste pertsonen pentsamendu, iritzi, ideologia eta erlijio askatasuna errespetatu.
- f) Bizitokian dauden pertsonen arteko gatazkak edo haserreak gertatzen direnean, bertako erakunde arduradunak horiek konpontzeko erabakitako neurriak bete.
- g) Bizitokiaren helbidea eta telefonoa isilpean gorde. Erreferentzia gisa oinarrizko gizarte zerbitzuetako edo bertako erakunde arduraduneko helbidea eman, baldin beste herri erakunde batek bizitokiari eta helbideari buruzko datuak eskatzen badizkie.
- h) Elkarrekiko errespetuan, tolerantzian eta lankidetzan oinarritutako jokabidea jarraitu, bizikidetzaz errazagoa izan dadin bai egoiliarren artean eta bai auzokoekin; eta bizilagunen elkartean jarrita dauden arauak beteko dituela hitzeman.
- i) Etxebizitzan dauden objektuak, ekipamenduak eta tresnak ondo eta errespetuz erabili.
- j) Bizitokiaren lokaletan, nahita edo utzikeria larri bidez, eragindako kalteen ardura izan.
- k) Bizitokian sartzen ez utzi zerbitzu horretan hartu gabe dauden pertsoneri edo baimendu gabeko langileei, arduradunen berariazko baimena dagoenean izan ezik.
- l) Etxebizitzako giltzaren kopiarik ez egin, eta giltzak beste inori ez utzi. Egonaldia bukatzen denean, giltzak etxebizitzako arduradunari entregatu.
- m) Bizitokian animaliarik ez eduki, azaroaren 21eko 17/1997 Legean, itsu-txakurrei buruzkoan, aurreikusitako kasuetan izan ezik, edo salbuespenezko kasuetan berariaz baimentzen badu baliabidearen erakunde arduradunak.
- n) Erreferentziako gizarte zerbitzuek egindako banakako arreta-plana edo familiarra bete.
- o) Guztiz debekatuta dago droga eta legez kanpoko sustantziak kontsumitzea, eta armak edukitzea.

III. KAPITULUA. PROZEDURA

5. artikulua. Sartzeko prozedura

HASIERAKO ESKAERA

Sartzeko hasierako eskaera Udaleko gizarte zerbitzuen bidez egingo da, eta beraiek berehala tramitatuko dute, egoeraren larritasunak hala eskatzen duelako. Sinatutako eskaera-orri formalizatuaren bidez egingo da eskaera.

Prozesuaren edozein unetan pertsona interesdunak atzera bota dezake bere eskaera. Kasu horretan idatziz adierazi beharko du. Atzera egiten badu eskaera artxibatu egingo da.

TRAMITAZIOA ETA BALORAZIOA

Eskaeraren tramitazioa eta balorazioa Gizarte Zerbitzuetako teknikariek egingo dute, eta derrigorrez egin beharreko txosten batean honakoak jasoko dituzte:

- Bizitokian sartuko den pertsonaren edo pertsonen identifikazio-datuak.
- Eskatzailearekin batera bizi ohi diren gainerako pertsonen identifikazio-datuak.
- Bizitoki eskaera eragin duten zirkunstantziak (arautegi honetako 2. artikuluan ezarritakoak).
- Bizikidetzaren egoera ekonomikoa.
- Bizitokia ematearen egokitasunari buruzko balorazioa.
- Epe horretan egin beharreko esku-hartze profesionala.
- Bizitokia hartzen duenak beteko dituen konpromisoak.
- Balorazioa ona izanez gero, egonaldiak iraungo duen denboraren proposamena.

Txosten hori eta bertan adierazten diren zirkunstantziak ziurtatzeko agiri guztiak espedientean sartuko dira. Bizitokia libre geratu ahala, eta ondoren adierazten den lehentasun hurrenkera aplikatuta, ebazpen proposamena egingo zaio organo eskudunari.

Arau orokor gisa kasu batek erabilera lehentasuna izango du, pentsatzen bada egonaldiak dirauen bitartean bizitoki-gabeziaren arazoari irtenbide bat eman dakiokela, edo helburu hori lortze aldera esku-hartzeak martxan jar daitezkeela.

Eskaera aztertu eta baloratu ondoren, proposamena organo eskudunari helaraziko zaio, eta horrek ebazpena egingo du gizarte larrialdiko apartamentua emateko eskaera ontzat hartuz edo baztertuz.

BESTE UDALERRI BATEK EGINDAKO ESKAERA

Eskaera beste udalerrri batek egiten duenean, bizitokiaren beharra adierazten duten zirkunstantziak egiaztatze beharrezko agiri guztiak aurkeztuko dira, eta horrekin

batera alderdi adierazgarrienak jasoko dituen balorazioaren txostena ere erantsiko da.

Gizarte Zerbitzuetako Departamentuak agiri guztiak jaso ondoren, txosten teknikoa aurkeztuko du, eskaera hori onartu edo baztertzeko proposamenarekin batera.

Proposamena organo eskudunari helaraziko zaio, eta horrek ebazpena egingo du gizarte larrialdiko apartamentua lagatzeko eskaera ontzat hartuz edo baztertuz.

EBAZPENA

Eskaera Udal Erregistroan sartzen denetik kontatzen hasi eta gehienez 15 eguneko epean egingo da ebazpena.

Aurreko atalean adierazitako epean berariazko ebazpenik hartzen ez bada, eskaera ezetsi egin dela ulertuko da, eta interesdunak aukera izango du berraztertze hautazko errekurtsioa edo administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jartzeko.

Dena den, larrialdiko apartamentuan sartu aurretik, onuradunak esku-hartze plan bat sinatu beharko du. Eskatzaileak agiri hori sinatzen ez badu, eskaerari uko egin diola ulertuko da.

6. artikulua. Zerbitzuaren iraupena

Zerbitzua ematea erabakitzen bada, Alkatzaren ebazpenean egonaldiaren iraupena agertuko da. Iraupena finkatzeko kontuan hartuko dira, batetik, kasuaren ezaugarriak, eta bestetik, zein aukera egon daitezkeen zerbitzua eman beharra eragin duen egoera konpontzeko. Oro har iraupena 6 hilabetekoa izango da, kontratua sinatzen denetik kontatzen hasita. Edonola ere, udal etxebizitzan egingo den egonaldia gehienez 12 hilabetekoa izango da.

IV. KAPITULUA. ZERBITZUA ETETEA ETA BUKATZEA

7. artikulua. Zerbitzua bukatzea

Zerbitzua ondorengo arrazoiengatik bukatuko da:

- Egonaldiaren denbora bukatzea.
- Erabiltzaileak zerbitzuari uko egitea.
- Heriotza.
- Zerbitzuaren prestazioa eragin zuen beharraren arrazoia desagertzea.
- Zerbitzua emateko kontuan izan diren datuak ezkutatzea edo faltsutzea.
- Zerbitzuan sartzeko eskatutako baldintzetako bat galtzea.
- Zerbitzuaren jarraipena egiteko beharrezkoa den dokumentazioa ez aurkeztea.
- Beste erabiltzaileei eraso fisiko edo psikologikoak egitea.

- Zerbitzuaren ordainagiritan inolako arrazoirik gabe atzeratzea.
- Arautegi honetan erabiltzaileentzat jarritako betebeharrak ez betetzea.
- Arrazoirik gabe ez bertaratzea.
- Gizarte Zerbitzuetako langileen edo horiek baimendutako beste pertsona batzuei sartzan ez uztea.
- Barne-araubidea ez betetzea.
- Esku-hartze planean sartutako eta egin beharreko ekintzak ez betetzea.

Dagokion espedientea izapidetu ondoren, eta Gizarte Zerbitzuetako zuzendaritzak hala proposatuta, zerbitzuaren prestazioa tokatzen zaion eguna baino lehen bukatzea erabaki ahal izango da, dagokion ebazpena hartuta, eta aurrez interesdunari entzunda.

8. artikulua. Utzarazpen administratiboa

Arautegi honetan adierazitako arrazoiengatik edo emandako epea bukatu izanagatik, larrialdiko apartamentua utzi behar bada, baina bertan daudenek utzi nahi ez badute, utzarazpen administratibo bidez behartuko dira, eta hori egiteko Toki-erakundeen Ondasunei buruzko Erregelamenduaren 120. artikulua eta hurrengoak, edo hura ordezkaturiko duen araudiak xedatutako prozedurak jarraituko dira.

V. KAPITULUA. ARAUBIDE EKONOMIKOA

9. artikulua. Tasak

Dagokion ordenantza fiskalean urtero jarritako tasa ordaindu beharko dute zerbitzu honen erabiltzaileek.

10. artikulua. Erabiltzaileen diru-ekarpena

Erabiltzaileek kopuru horren % 100 ordainduko dute ondorengo egoeretan:

- Baldin erabiltzaileak, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentan, kide kopuru bereko bizikidetzaren unitate baterako jarritako indarreko kopuruaren % 150etik gorako diru-sarrerak baditu.
- Baldin erabiltzaileak, istripuaren edo harrera eragin duen zirkunstantziaren ondoriozko gastuak estaltzeko, aseguru bat kontratatuta badu, eta ordeko bizilekua aseguraturako kontzeptu modura sartu badaiteke.
- Baldin etxebizitzan dagoen artean erabiltzailea bizitoki gastuak ordaintzeko edozein laguntza publiko edo pribatu jasotzen ari bada. Udalak berak emandako laguntzak ez dira kontuan hartuko ondorio hauetarako.

- Baldin zerbitzua erabiltzeko eskaera beste erakunde batek egin badu, 3.b artikuluan adierazitako moduan.

Erabiltzaileek kopuru horren % 50 ordainduko dute ondorengo egoeretan:

- Baldin erabiltzaileak, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentan, kide kopuru bereko bizikidetzaren unitate baterako jarritako indarreko kopuruaren % 100etik gorako eta %150 edo hortik beherako diru-sarrerak baditu.

Erabiltzaileek ez dute tasarik ordainduko ondorengo egoeretan:

- Baldin erabiltzaileak, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentan, kide kopuru bereko bizikidetzaren unitate baterako jarritako indarreko kopurua edo hortik beherako diru-sarrerak baditu.

Zerbitzua, arrazoi desberdinak direla-eta, hainbat pertsonak edo pertsona taldek partekatzen badu, bakoitzak aurreko irizpideen arabera dagokion tasa ordaindu beharko du.

11. artikulua. Zerbitzuaren erabilerak eragindako gastuak

Udalak edo zerbitzua kudeatzen duen enpresak ordainduko ditu komunitate gastuak, argindarra, gasa, ura, higiezina eduki edo erabiltzearekin lotutako edonolako tasa edo zergak, zaborren bilketako tasa eta konponketek eragindako gastuak barne, non eta gastu horiek apartamentuan hartuta dauden pertsonak eragindakoak ez badira.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Arautegi honetan jaso gabeko kasu guztietan, edota sor daitezkeen aurreikusitako gabeko kasu berezi guztietan, Gizarte Zerbitzuetako Departamentuak ahalmen osoa izango du kasu bakoitzean egoki iruditzen zaizkion neurriak proposatzeko.

EGINBIDEA.- Jasoarazteko Arautegia, hasierako izaeraz, 2010eko ekainaren 30ean egindako osoko bilkuran onartu zuela Udalbatzarrak.

Zarautz, 2010eko uztailaren 6a
Idazkaria

EGINBIDEA.- Jasoarazteko, Arautegiaren testu osoa 2010eko abuztuaren 30eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (165 zk.) argitaratu zela, eta 2010eko irailaren 17an sartu dela indarrean.

Zarautz, 2010eko irailaren 21a
Idazkaria